

HARREMANAK

App bat izanda, internet-en bidez egin beharko dituzte janari eskaerak, orduan jendea bultzatzeko sare sozialen bitartez jarriko genituzke iragarkiak. Horretaz gain, janari eskaera bakoitzak puntu batzuk izango ditu gastatukako diruaren arabera eta puntu hoiekin produktu batzuk merkeago erosi ahal izango dituzte. Puntu asko aurretzen badituzte zerbitzu bat dohainik lortu ahalko dute. Enpresak ez duenez lokal bat jendea bertara joateko, gure entrega pertsonak gogoratuko die aplikazioan zerbitzuaren denbora eta entrega gizonen tratua baloratzeko, horrela nola hobetu ahal dugun jakingo dugu lehen eskuz.

